

AZTARNA EKOLOGIKOA



Tolosako neska-mutilek Eskolako Agenda 21 programan Ekitate Gabezia ri buruzko ezaugarriak lantzerakoan, besteak beste, aztarna ekologikoaren kalkulua egin dute. Kalkulu honen ondorioz, esan dezakegu planeta osoko biztanleek tolosarrok dugun bizi-maila bera izango balute, gure planeta ez litzatekeela nahikoa izango gure beharrak asetzeko: ia 3 planeta beharko genituzke.

Baina zer da aztarna ekologikoa?

Aztarna ekologikoak gizakiak naturan ezartzen duen presioa neurtzen du. Ebaluatzeko tresna da, hain zuzen ere ondorengoa ebaluatzen du: gizarte batek zer ekoi-zpen-azalera behar duen kontsumitzen dituen baliabideak sortzeko eta sortzen dituen hondakinak xurgatzeko. Planetaren baliabideak kontuan hartuz, batzuoak, oso nabarmen, gure ahalbideen ginetik bizi gara eta are okerrago dena, gure oparotasuna beste askoren txirotasunaren kontura bizi dugu eta datozen belaunaldien etorkizuna arriskuan jartzen ari gara. Ezer egiten ez badugu, 2050. urterako gizadiaren aztarna ekologikoak planetaren ahalmen ekologikoa %100 gaintituko du! Bere etxea hipotekatu duen familia gara, bere basoaren ustiapenean birsortzeko ahalmena gaintitzen duen egurgilearena egiten ari gara edo bere dirua soilik gastuei aurre egiteko erabiltzen duen enpresa gara.

Eta zer dago nire esku?

Ondorengo puntuetan gure esku dauden eginkizun batzuk agertzen dira, nork bere aztarna ekologikoa gutxitzeko:

1 Ohizko bonbillak kontsumo gutxiko 5 bonbillaz ordezkatuta, nire aztarna ekologikoa urtean **100 m²** gutxitzen dut.

2 Tokiko jakien kontsumoa %50 handituz gero, nire aztarna ekologikoa urtean **300 m²** gutxitzen dut.

3 5 orduko ibilbidea egiteko, urtean behin abioia hartu beharrean trena edo autobusa hartuz gero, nire aztarna ekologikoa urtean **1.000 m²** gutxitzen dut.

4 Dutxa hartzen dugun bakoitzean 3 minutu gutxiago egonda, nire aztarna ekologikoa urtean **400 m²** gutxitzen dut.

5 Hortzak garbitzerakoan ur txorrotata itxiz gero, nire aztarna ekologikoa urtean **100 m²** gutxitzen dut.

6 Autoan astean 25 km gutxiago ibilita, nire aztarna ekologikoa urtean **500 m²** gutxitzen dut.

7 Asteko haragi anoa edo razioa proteina duen barazkiarekin ordezkatzuz gero (soja), nire aztarna ekologikoa urtean **1.000 m²** gutxitzen dut.

8 Erosketak egiterakoan bildu gabeko jakiak eta produktu freskoak %50 gehituta, nire aztarna ekologikoa urtean **500 m²** gutxitzen dut.



TOLOSAKO
UDALA



tolosakoingurumenzentroa

TOLOSA2015